



DEKRETUA

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 25. artikuluan, “Egutegi fiskala” izenburupean, aldian behin ordaindu beharreko diru-sarreraren epeak zehazten dira.

Zenbait diru-sarrerari dagokionez, egutegia 2020ko egun baliodunetara egokitu beharra dago —epearen hasiera- eta bukaera egunak—.

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 25.2. artikuluan aurreikusitakoaren ildotik, artikuluko bereko 1. puntuan adierazitako ordainketa-aldien aldaketak alkatearen dekretuz onetsiko dira.

Horrenbestez, alkate lehendakariak, Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrak (25. art.) eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak —Tokiko gobernua modernizatzeko neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatuak— aitortzen dizkion eskumenak baliatuz, hauxe:

EBATZI DUT:

Ondoren adierazten diren diru-sarrerak ordaintzeko egutegi fiskala aldatzea, eta honela finkatzea 2020rako:

Ekonomia-jardueren gaineko Zerga (EJZ)	Irailaren 3tik azaroaren 3ra
Kutzazain automatikoak	Irailaren 9tik azaroaren 9ra
Ura eta ur zikinen tratamendua	1. hiruhilekoa: 2020ko maiatzaren 4tik ekainaren 15era. 2. hiruhilekoa: 2020ko abuztuaren 3etik irailaren 15era. 3. hiruhilekoa: 2020ko azaroaren 2tik abenduaren 15era.
Ibilgailu pasabideak	1. seihilekoa: Martxoaren 25etik maiatzaren 25era. 2. seihilekoa: Irailaren 25etik azaroaren 25era.

Kontsezioak (sei hilean behin ordaintzekoak)	1. seihilekoa: Martxoaren 25etik maiatzaren 25era. 2. seihilekoa: Irailaren 25etik azaroaren 25era.
Hilerrak zaintzea	Martxoaren 18tik maiatzaren 18ra.
Ustiapen bereziak (lurra nahiz lurpea okupatu eta lur sailak baliatzea)	Maiatzaren 27tik uztailaren 27ra
Hiri-baratzeak	Maiatzaren 27tik uztailaren 27ra.
Industria-isurketak	Martxoaren 4tik maiatzaren 4ra
Kontsezioak (urtean behin ordaintzekoak)	Maiatzaren 27tik uztailaren 27ra.
Mahaitxoak	Maiatzaren 27tik uztailaren 27ra.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urtarrilaren 31n.

ALKATE LEHENDAKARIA